

ZUMARRAGA-URRETXU / Saio emankorra irakurle taldean Miren Agur Meaberen eskutik

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldearen martxoko bilkura izan zen, asteazkenean, ohi bezala Urretxuko liburutegian. Oraingo saioan, Miren Agur Meabe idazle bizkaitarraren 'Zazpi orduak' liburu fantastikoaren gainean solastatu ziren irakurle taldekoak, idazlea ere bertan zela. Meabek liburuaren gaineko hainbat argibide eman zituen, eta irakurle taldeko kideen zalantzak asetu zituen.

Miren Agur Meabe, olerkari bikaina da, eta haur eta gazteen literatura alorrean hainbat lan argitaratu ditu. Kaleratu berri duen 'Zazpi orduak', ukitu fantastikoa duten hainbat ipuinez osaturiko lana da, euren artean lotura berezia dutenak.

Hurrengoa, Xabier Montoia

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak apirilaren 12an egingo du bere hurrengo bilkura, eta egun horretan, Xabier Montoiaren 'Gasteizko hondartzak' lanaren gainean jardungo dira. Irakurle taldearen ateak zabalik daude irakurtzea gustuko duen edonoren-tzat. Liburua irakurri eta bertara hurbildu baino ez da egin behar. Saioak, Gorka Azkaratek gidatu ohi ditu. Apirileko saioaz gain, maia-tzean ere beste saio bat egingo da, ikasturteari amaiera emateko. Urrian egin zen aurtengo ikasturteko lehenengo saioa, eta aurten hiru idazle pasa dira irakurle taldetik: Eider Rodriguez, Ur Apalategi eta etorri berri den Miren Agur Meabe.

Antzerkia igandea

Bestalde, Martxoan Bertsoa zikloaren barruan, umeentzako antzerkia izango da igandean Labeaga aretoan. Igandeko emanaldia, bertso eskolako gaztetxoek taularatuko dute, eta arratsaldeko 5etan hasiko da. Emanaldian, jolasak, kantuak, dantza, eta beste hainbat sorpresa izango dira, betiere irudimenaren erabilera izanik ardatz eta helburu.

Xabiartxo izeneko gaztetxoa, irudimenik ez duen gaztetxo bat da. Ametsetan dagoela, bere barneko ahots batek esaten dio irudimena erabiliz askoz hobeto biziko dela, parre gehiago egingo duela, eta jolas gehiago egiteko aukera izango duela. Horrela, irudimenaren kutxatila aurkitzea izango da bere helburua, eta horretarako, hainbat froga igaro beharko ditu. Froga horiek gainditzeko, ikusleen laguntza izango du Xabiartxok. Umeentzat antolatzen diren emanaldietan ohikoa bilakatu den moduan, emanaldiaren amaieran zozketa bat izango da bertaratzen diren haur guztien artean.